

INTERNETEKO VOD ETA STREAMING ZERBITZU-EMAILEEK EKKIren ERREPERTORIOKO OBRAK,
FONOGRAMAK ETA/EDO IKUS-ENTZUNEZKO GRABAZIOAK ETA INTERPRETAZIOAK ERABILTZEKO
TARIFAK

I. AINTZAT HARTU BEHARREKO ESKUBIDEAK

Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan aitortutako eskubideak. Lege horrek Jabetza Intelektualaren Legean (aurrerantzean, **JIL**) gaiari buruz indarrean dauden xedapenak arautu, argitu eta harmonizatzen ditu, eta hauek dira tarifa horren bidez baimendu eta likidatzen diren eskubideak:

- a. Erreproduzio edo komunikazio publikoen eskubideak, eskura jartzea barne. Ikus-entzunezko eta beste obra batzuen (musikakoak, literaturakoak edo grafikoak) egileei dagozkie, JILko 18 eta 20.2.i) artikuluetan adierazten den moduan.
- b. Aurreko paragrafoan adierazitako egileek ordainsariak jasotzeko eskubidea, JILeko 90.4 artikulurekin bat.
- c. Artista interprete edo jotzaileek ordainsariak jasotzeko eskubidea, JILko 108.3 artikuluan aurreikusita.

II. EKKIren ERREPERTORIOA

EKKIren errepertorioa tarifa horri dagokionez ondoren adierazten diren prestazioek mugatzen dute, aurreko puntuan adierazitako modalitate guztietan, eta betiere titular edo eskatzaileek EKKIri kudeatzeko eskatu badiote:

- a. Ikus-entzunezkoak; zuzendaritza/errealizazioa, gidoia eta musikalak barne.
- b. Edozein ikus-entzunezkotan gehitutako musika-obrak.
- c. Aurreko a eta b puntuan adierazitako edozein obretan gehitutako artista interprete edo jotzaileen prestazioak.
- d. Fonogramak eta audio-grabazioak.
- e. Ikus-entzunezko grabazioak.

III. ERABILTZAILEA IDENTIFIKATZEA

Tarifa horren erabiltzaileak lineako VOD eta *streaming* zerbitzu-emaileak dira; II. atalean adierazitako errepertorioa ustiatzen dutenak, azken erabiltzailearen kontsumoa ordainpekoa izan edo ez.

Tarifa honetatik kanpo geratzen dira antzeko ustiapena egiten duten telebistako operadoreak. Azken horiek dagokien tarifa zehatza ordaindu beharko dute.

IV. ZERGA-OINARRIA

Besteak beste, hauek egotz daitezke (baina ez soilik):

1. Harpidedun-kuoten ondoriozkoak.
2. Ustiapen-defizita ordaintzeko egindako diru-ekarpenak
3. Enpresa-jarduera egiteko jasotako dirulaguntzak
4. Publizitatetik datozen diru-sarrerak, honako hauek badira:
 - a. Diruzko kontraprestazioak
 - i. Programa propioa ekoizteko edo beste norbaitekin ekoizteko babesleek ordaindutako zenbatekoak barne
 - b. Diruzko kontraprestaziorik jaso ezean, antzera kalkulatuko dira. Kasu honetan telebistak diru-sarrera gisa ordaindu gabeko iragarki-espazioaren antzeko espazio baterako ezarritako tarifa aplikatuko da.
5. Hirugarrenek ordaindutako gastuak, kontabilitate-arauekin bat

Egotzi ezin diren diru-sarrerak izango dira:

1. Jarduera normaltasunez egiteko erabiltzaileek ordaindu behar ez dituzten kostuetarako dirulaguntzak, honako hauek barne:
 - a. Gastu puntualak edo aurreikusitako gabekoak;
 - b. Jarduerarako hertsiki beharrezkoak ez diren eta diru-sarreretan ondorioz ez dituzten gastuak;
 - c. Operadore publikoek publiko izateagatik ordaindu beharreko gastuak.
2. Kudeaketa-entitateen eskubideak ordaintzeko erabilitako dirulaguntzak.
3. Erabiltzaileen ohiko jardueratik kanpo dauden beste diru-sarrera batzuk, erreperitorioaren ustiapenari lotuta ez daudenak.

V. TARIFA-TASA

IV. atalean identifikatutako oinarriari tarifa-tasa hauek aplikatuko zaizkio:

VOD – STREAMING OBRAK + IKUS-ENTZUNEZKO GRABAZIOAK ETA INTERPRETAZIOAK						
EGILEAK			Fonogrametan agertzen diren musika interpretazioak	Ikus-entzunezko grabazioen berezko musika interpretazioak	Ikus-entzunezko interpretazioak (antzezpena, ahotsa, etab.)	GUZTIR A
Erreproduktzioa	Komisio publikoa	Guztira				
% 1,60	% 2,50	% 4,10	% 4	% 0,60	% 1,30	% 10,00

Adierazitako tarifa guzti horiek egiazko erabilaren arabera aldatuko dira. Egiazko erabilera kalkulatzeko erabiltzaileak aldizkako erabilera-txostenak emango ditu. EKKIk bere erreperitorioarekin alderatuko du aplikatu beharreko azken tasa zehazteko. Aplikatu beharreko azken tasa erreperitorioaren erabilera totaletik EKKIren erreperitorioaren erabilera-proporzioaren arabera kalkulatu da:

Aplikatu beharreko tasa x egiazko erabilaren % = Aplikatu beharrezko azken tasa

VI. GUTXIENENKO TARIFAK

Tarifa-tasen aplikazioaren zenbatekoa jarraian adierazten den kopurua baino txikiagoa bada, erabiltzaileek gutxieneko tarifa hauek ordaindu beharko dituzte:

- Erabiltzailearen negozio-eredua harpidetza bidezkoa bada: 0,02 €/harpidedun hileko
- Erabiltzailearen negozio-eredua ikus-entzunezkoa ikusteko unitate-ordainketa bidezkoa bada: 0,005 € ikustaldi bakoitzeko
- Erabiltzailearen negozio-eredua doakoa bada (publizitatearekin edo gabe): 0,001€ ikustaldi bakoitzeko

Erabiltzailearen negozio-eredua mistoa bada, erabilerak bereiziko dira negozio-ereduaren arabera, eta tarifa dagokion erabilerari aplikatuko zaio soilik.